

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

1113

EBAZPENA, 2023ko otsailaren 22koa, Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren zuzendariarena, zeinaren bidez berriro jendaurrean jartzen baita Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana onartu zuen irailaren 27ko 139/2016 Dekretua aldatzen duen dekretu-proiektua.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2017ko uztailaren 14ko Agindua-
ren bidez, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana aldatzeko
izapideak hastea erabaki zen.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2019ko uztailaren 23ko Agindua-
ren bidez, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana aldatzeko
dekretu-proiektua alde aurretik onartzea erabaki zen.

Natura Ondarearen eta Klima Aldaketako zuzendariaren 2019ko uztailaren 23ko Ebazpenaren
bidez, jendaurrean jarri zen Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzen-
tzeko Plana aldatzeko dekretu-proiektua.

Kontuan hartuta herritarrek, hainbat elkartek, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Urdaibaiko Biosfera Erre-
serbako udalek aurkeztutako alegazioek aldaketa garrantzitsuak dakarzkotela Natura Ondarearen
eta Klima Aldaketako zuzendariaren 2019ko uztailaren 23ko Ebazpenaren bidez jendaurrean jarri zen
dekretu-proiektuari, beharrezkotzat jotzen da jendaurrean jartzeko izapide berri bat egitea.

Azaldutako guztiagatik, eta honako hauek kontuan hartuta: Urdaibaiko Biosfera Gebenaldea
Babestu eta Antolatzeari buruzko uztailaren 6ko 5/1989 Legearen 15.1 artikulua; Xedapen Oroko-
rrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8. eta 9. artikulua; Urdaibaiko
Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana onartzen duen irailaren 27ko
139/2016 Dekretuaren 1.2.2 eta 1.2.3 artikulua; eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingu-
rumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuaren
7.m) artikulua zuzendari-kargua duten pertsonen ematen dien eskuduntzari jarraikiz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana
onartzen duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretua aldatzeko dekretu-proiektua hilabete batez jen-
daurrean jartzea, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo
egunetik aurrera.

Bigarrena.– Aurreko atalean xedatutakoaren ondorioetarako eta alegazioak aurkezteko, Urdai-
baiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana onartzen duen irailaren
27ko 139/2016 Dekretua aldatzeko dekretu-proiektuaren testua eskuragarri egongo da Eusko
Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hasiera/>) eta Eko-
nomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean ([https://www.euskadi.eus/
eusko-jaurlaritza/ekonomiaren-garapen-azpiegitura-saila/](https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/ekonomiaren-garapen-azpiegitura-saila/)).

Vitoria-Gasteiz, 2023ko otsailaren 22a.

Natura Ondare eta Klima Aldaketako zuzendaria,
ADOLFO URIARTE VILLALBA.